



elkar-lan
S. C O O P.

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

Entidad declarada de UTILIDAD PÚBLICA
HERRI ONURAKO izaera emandakoa

Elkar-Lan, S. Coop.
San Vicente, 8 - 9.º Izq. (Edif. Albia II)
48001 BILBAO
Tel.: 94 470 37 60
Fax: 94 470 37 61
e-mail: elkarlan@elkarlan.coop
www.elkarlan.coop

Bilbao, 2022ko urtarrilak 8

Asunto: **ARABAN ENPRESA BERRIAK SORTU ETA FINKATZEKO LAGUNTZAK (ARABAN EKITEN 2022)**

Kooperatibista agurgarria:

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean laguntza-deialdi bat argitaratu da, **2022ko ekitaldian Araban enpresa berriak sortu eta finkatzeko** (Arabian Ekiten).

Helburua:

Arabian enpresa berrien sorrera sustatzea eta enpresa horiei sendotze- eta hedatze-prozesuan laguntzea, Arabako ehuna modernizatzen, dibertsifikatzen eta lehiakorrago bihurtzen laguntzen duten erakundeei dirulaguntzak emanez.

Erakunde onuradunak:

- Arabako enpresek **gehienez ere bi urteko antzintasuna dutenak** jarduera hasten denetik edo eskaera egiten den egunean eratu zirenetik.
- **Jarduera dibertsifikatu** nahi duten Arabako pertsona juridikoak, enpresa-unitate berri bat sortzeko proiektu zehatz bat aurkeztuz
- Arabian jarduera-zentroa martxan duten pertsona fisiko edo juridikoak, azken lau urteetan (2018- 2021) **Arabian Ekintzaitza programaren laguntzak jaso dituztenak** enpresa berriak sortzeko fasean, eta gutxienez enplegu bat eta gehienez hamar dituztenak (sustatzaileak alde batera utzita)

Diruz lagun daitekeen kontzeptua:

- Merkatu- eta/edo bideragarritasun-azterketak.
- Proiektuarekin lotuta dauden berariazko txostenak, azterlanak eta aholkularitza teknikoak.
- Prototipoak diseinatu eta eraikitzeko gastuak, eraikuntzako gastuak barne. Gehieneko muga: 10.000,00 euro.
- Patenteak, homologazioak, utilitate-modeloak eta marka komertzialak eskatzeko, emateko eta erregistratzeko hasierako gastuak. Gehieneko muga: 10.000,00 euro.
- Jarduerarekin lotura zuzena duten berariazko ikastaro teknikoetara joatea, 350 ordutik beherakoak badira, betiere prestakuntza arautuko eskaintzaren barruan sartzen ez badira. Muga: 3.000,00 euro.
- Diruz lagun daitekeen proiektuari lotutako komunikazio-gastuak. Muga: 20.000,00 euro.

- Azoketara joateko bidaiak.
- Softwarea, hardwarea eta berariazko garapen edo aplikazio informatikoak erostea.

Zenbatekoa:

Gastu diruz lagungarriko zenbateko minimoa, 100,00 euro. Diru-laguntzako zenbateko minimoa, 1.500,00 euro.

Eskabidea aurkezteko epea:

2022ko martxoaren 1eko 14:00etara arte.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/solicitar-ayuda-emprender-en-alava>

Fco. Javier Sanz Santaolalla
Director